



FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure proiektuak funtziona dezan egin behar ditugun gauzarik garrantzitsuenak hauek dira:

Sarean plataforma edo aplikazio bat izatea, erabili nahi duten pertsona guztiek erabili ahal izateko.

Era berean, publizitate edo propaganda ona izatea, bezeroak erakarri eta limurtzeko, gure ideia erabili nahi izan dezaten, eta online erostea ez erabakitzeko, gainera errentagarria izatea izango da helburu nagusia, hau da, bezeroei ematen diegun zerbitzuaren truke dirua irabaztea.

Gure zerbitzuak honako forma honetan funtzionatuko du: Bezeroak nahi duenaren lista bat ekarriko du eta gu produktuen bila joango gara, produktuak erakutsiko dizkiogu eta berak erabakiko du produktuak eskatutakoarekin bat datozen edo ez eta beraz, eramago dituen edo aldaketaren bat egitea nahiago duen. Bezeroak aukeratzen duenean zer produktu eraman nahi dituen eta zein ez, hortik aurrera, produktu bakoitza kobratuko genioke, supermerkatu arrunt batean bezala; hau da, pertsona batek jarriko lizkioke produktuak zintan, eta banan-banan pasatuko lirake, kobratzeko sistema automatikoak erosketaren azken zenbaketa egin dezan.

Gure lehiakideak izango dira enpresa berdina edo gurearen antzekoa beste supermerkatu batzuetan montatzen dutenak. Hau da, enpresa bat helburu berarekin sortzen badute edo ideia gurearen gauza berean oinarritzen bada, gureak baino kalitate hobea edo prezio merkeagoak badituzte, hortik aurrera gure lehiakideak mehatxu batean bihurtuko lirake, bezero batzuek nahiago izango luketelako beste supermerkatu batera joatea zerbitzu horien bila, gureen bila joan beharrean.